

Bero-beroan

Hamaika Bilbo telebista EAEn

ORAIN ARTE Bilbon eta inguruko herrietan ikus zitekeen. Orain, Euskaltelen bidez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan seinalea jaso ahalko da.

Jaurlaritzak eta EEPk hitzarmena berri dute

BAZEN ETA BADA nahikoa beldur. Nafarrek eta Iparraldeko euskalgintzako eragileek kezka adierazi zuten EAEn hauteskundeak sozialistek irabazitakoan: orain arte jasotako diru-laguntzak iritsiko bai? Lehen urratsean badirudi baietz. Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak iazko hitzarmena berri dute: EEPk

920.000 euro jarriko ditu eta Jaurlaritzak 470.000 euro.

Eugenio Mujika, HABEko zuzendari

JOSEBA ERKIZIAREN tokia hartuko du Eugenio Mujika legorretarrak (Gipuzkoa). Euskara irakaslea da eta ez dago inolako alderdi politiko-tan afiliatua.

Katalanak atzera egin du Valentzian

INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS akademiak egin du ikerketa (*Informe sobre la situació de la llengua catalana 2005-2007*). Galerak Valentziaz gain, Rosellon eta Alguerren ere izan dira. Hego Katalunian gora

egin du katalanaren erabilerak etxean. Laburrean ondokoak dira emaitzak:

✓ Kataluniako erdialdean: %80k baino gehiagok darabil katalana etxean.

✓ Aragoiko mendebaldeko eremuan: %60-80k.

✓ Kataluniako gune urbanoetan eta Balear irletan: %40-60 artean.

✓ Valentzian eta Andorran: %20-40k hitz egiten dute katalana etxean.

✓ Rossellon (Ipar Katalunia): %20k baino gutxiagok.

✓ Sardiniaiko Alguer hirian: %20k baino gutxiagok.

Eremu pribatua katalanak atzera egiteko arrazoiak bi dira batez ere: belaunez belauneko transmisioa etetea eta hainbat administrazioak hizkuntzari etengabe trabak jartzea.

ONINTZA IRURETA



Honelako albistek egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Energia berriztagarrien aldeko apustua

Barakaldoko BEC energia berriztagarrien inguruko eztabaidaren nazioarteko zentro bihurtu da joan den asteburuan, eta bertan izan dira gai horretaz arduratzen diren liderrak. Esaterako, Abu Dhabi hiri arabiarraren proiektua nabarmendu da, energia berriztagarrien aldeko apustua egin baitu eta zalantzan jarri –baita askotan arbuia ere– energia nuklearra. Horrelako proiektuek aldaketa sakona adierazten dute: petrolioaren kulturatik berriztagarrietara salto egitea. Abu Dhabi 22.000 milioi dolar (17.400 milioi euro) inbertituko ditu Masdar sortzeko, hiri “utopikoa”. 50.000 pertsona biziko dira. Autorik gabeko hiria da, eraikin baxuekin, oinezkoentzako kaleekin, eta eguzki-plaketatik elikatuko den elektrizitate bidezko garraio sistema berriztailearekin. CO₂ gabeko planetako lehen hiri bilakatuko da, energian buru askia izango da eta hondakin guztiak birziklatuko ditu. Espero da 2016an inauguratzea.

Eredu hori posible izango da egiteko dirua dagoelako. Egia da. Munduko per capita errenta altuenetakoa du (47.000 euro). Alabaina, badao petrolioaren kulturatik berriztagarrien kulturarako bilakaera. Abu Dhabi esfortzu handia egiten ari da gazteak energia iraunkorren inguruan hezteko.

Forum hori egin den garai berean, Espainiako Estatuan eztabaidatzen ari dira Garoñako zentral nuklearraren etorkizunaz, Zapateroren azken erabakiaren zain. Energia nuklearra arriskutsua da eta oso garestia, hondakinen eta segurtasunaren gastuak gehituz gero. Energia garbiak seguruak dira, merkeagoak eta enplegu gehiago sortzen dute. Arabiarren apustua oso zentzuduna da. Eta Zapaterorena? Laster jakingo dugu.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Martinrezola erabiltzaileak Tiraka blogean esanak: “Aurten bete dut laugarren urtea Lakuan ingelesa ikasten. Urteotan bizi izandako esperientziatik honako puntuekin gelditzen naiz:

✓ Urtero-urtero, ikasleen %90 euskaldunak ginen. Ez dut uste kasualitatea denik.

✓ Hori hala izanda ere, klaseetako ‘mundu erreferentziala’, itzulpen-hizkuntza, adibideak, baliokidetasunak... gaztelaniaz izan dira.

✓ Salbuespenak salbuespen, klase inguruko harremanetarako hizkuntza (klase aurreko, bitarteko eta ondoko hitz aspertuak eta abar) gaztelania izan da, baita euskaldunon artean ere, eta baita elebidun-elebakarren arteko proportzioa 9-1 zenean ere”.

Benito erabiltzaileak Karrajua blogean esanak Ibilaldiaz: “Azken batean urteetan frogatu digute egun bateko ekitaldiak, handia, jendetsua eta hunkigarria izan arren, ez dituela hizkuntza-ohiturak derrepentean aldarazten.

Alegia, ikastolen jaialdi horiek (eta beste batzuk) euskararen egunak izango dira, baina ez oro har euskaraz hitz egiteko egunak”.

Desagertuen lorratzean

EKAINAREN 18AN bi hilabete bete dira Jon Anza desagertu zenetik. Apirilaren 18an Baionan trena hartu zuen Okzitaniako Tolosara heltzeko asmoz. ETAk jakinarazi duenez, bere militantea da, eta dirua zeraman Tolosan bertan erakundearekin zuen hitzordura; talde armatuaren esanetan, ohar-tuak ziren polizia jarraika zuela. Anzak 20 urte igaro zituen Espainiako espetxeetan eta gaur egun gaixotasun larri bat pairatzen du.

Bere desagerpena salatzeko manifestazioa deitu zuten bere familiak eta lagunek joan den larunbatean Donostian. Baionan ere antolatu izan dira taldeak Anzaren arrastoren bat bilatu nahian: Baionan bertan Tolosarako trena hartu, geltokietan geratu, bere afitxak jarri eta erakutsi, trenbide honetako ohiko erabiltzaileei galderak egin... baina ezer ez. Lurrak irentsi balu moduan.

Espainian, esaterako, urtero 25.000 desagerpenen salaketa inguru egiten da. Horietatik %85 argitzen dira hamabost bat egunean eta desagertuak onik ateratzen dira. Gaur egun 12.000 pertsonen inguruan ez da inongo berririk. Ohiko desagerpenak dira, eta Anzarena ere izan daiteke horietako bat. Ezin da ezer baztertu, baina desagerpenaren testuinguruak bestelako hipotesiak indartzen ditu. Eta horren arrazoi nagusia da euskal gatazkarekin zerikusirik duten beste desagerpen kasuak ere badirela.

Horietako batzuk argitu izan dira, Joxi Lasa eta Joxean Zabalaren kasua, adibidez. Ezagunak dira heriotzean bukatu zuten Xabier Kalparsoro *Anuk*, Josu Zabala *Basajaun* eta Jose Luis Geresta *Totto* ETAko militanteen auziak; bahituak izan zirela salatu izan



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

du erakunde armatuak. Eta oraindik ere desagerturik jarraitzen duten beste hiru pertsona dira: Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*, Jose Miguel Etxeberria *Naparra*, eta Popo Larre. Desagerketa auzi bakoitzak bere historia luze eta korapilatsua du, desagerpenen errua ETAren adar desberdinen gainean ere utzi izan da hainbaten aldetik, adibidez *Pertur* eta *Naparraren* auzian, baina gaur gaurkoz hipotesi nagusiak segurtasun indarren edo talde parapolizialen inguruan egituratzen dira.

Horrez gain, azken urtebete honetan badira hiru pertsona ustez polizia indarren eskuetan egon izan direnak ordu batzuk edo egun batzuk, gero libre geratzeko edo atxilotu gisa agertzeko: Alberto Lopez, Juan Mari Mujika eta Lander Fernandez, azken hau iragan igandean atxilotua Madrilgo Barajasen, bidai batetik itzultzen zenean. Ez dira bakarrak, ordea, urteetan legez kanpoko atxiloteta ugari salaketak bildu izan dira, beldurra eragiteko asmoz, informazioa biltzeko edo zelatari lana proposatzeko.

Aurrekari hauek guztiek Jon Anzaren desagerpena "gera zikina" deitu izan den horretara bideratzen dute,

nahiz eta bestelako hipotesirik ere ezin den baztertu. Anzaren senideek bizirik agertuko ez den susmoa barneratzen ari direla jakinarazi dute.

HAUTESKUNDE guztietan izan ohi dira irregulartasunak; txikiak, argitzen dira eta listo. Hala diote orain. Europako hauteskundeetan ere egon ei dira, alderdi gehienei eragiten die, eta irregulartasunei indarra kentzeko Maria Teresa Fernandez de la Vegaren herriko adibidea aipatzen da. Boto desbideraketa handienak, hala ere, Iniziatiba Internazionalistari eragin dio eta, ondorioz, ia 1.400 boto gehiago eskuratu ditu EAEn, erkidegoko hirugarren indarra bilakaraziz. Ez da azaldu zergatik gertatu den. Estatuan ere irregulartasun ugari salaketak izan dira, baina argitzeke jarraitzen dute.

Pentsa liteke, eta badira horretarako zantzuak, irregulartasun horiekin ere Iniziatibak ez zuela europarlamentaririk lortuko, Espainian beharrezkoak ziren botoetatik urruti geratu dela alegia. Baina bestetik, eta adibide bakarra jartzeagatik, jakinda Estatua auzitegi gorenetakoa epaileak ere erosteko gai dela, nola demontre uxatu zalantzak argibide zehatzagoak eman ezik?